

Donostia, 2015eko urriaren 9a

## IDAZKARITZA NAGUSIARI

### INTERPELAZIOA, ESPEDIENTEEN ZAINTZAREN SEGIMENDUA DELA ETA

Irabazi Donostia taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 97. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egin nahi dio Eneko Goia alkateari, Udalbatzaren osoko bilkuran erantzuteko.

### JUSTIFIKAZIOA

Irabazi Donostia talde politikoak Atotxako geltoki intermodala egiteko plan bereziaren espediente teknikoak eta administratiboak eskatu zituen irailaren 28an.

Egun batzuk geroago jakinarazi zidaten espediente teknikoa aurkitu zutela soilik, eta espediente administratiboa une horretan ez zegoela artxiboan, baina ez ziguten esan non egon zitekeen. Hori horrela, ezin izan genuen espedientea ikertu eta analizatu, eta, gainera, ez genekien non ote zegoen.

Urriaren 7an, nik neuk galdegin nuen berriro espediente administratiboaz eta eman egin zidaten, Hirigintza sailak txosten bat egiteko erabili zuela azaldu eta gero.

Bi disfuntzio hauek jarri dira agerian:

- Ahuleziak espedienteen zaintzaren segimenduan. Justifikazioan frogatu den bezala, litekeena da espediente bat betiko galtzea eta, hori ez ezik, talde politikoez beren lana egiterik ez izatea ere.
- Espedientea non zegoen jakindakoan, ez ziguten abisatu kontsultatzeko moduan zegoela.

Hori dela eta, hauxe da nire

### INTERPELAZIOA

1. Disfuntzio larria iruditzen zaizu espedienteak desagertzea eta, horren ondorioz, eskura ez egotea talde politikoez lan instituzionala egin ahal izateko?
2. Nola liteke espediente bat desagertu ahal izatea eta ez jakitea nork hartu duen?
3. Zergatik ez zioten abisatu gero Irabazi Donostia taldeari espedientea eskuragarri zegoela?

Loïc Alejandro:  
Irabazi Donostiako zinegotzia